

Gramatika edukien aurkibidea

Índice de los contenidos gramaticales

1. unitatea

Etorkizuna

Etorkizuna egiteko nahikoa da aditzen partizipioari -KO atzizkia jartzea. Partizipioa -n bukatzen bada, -GO jartzen da.

El futuro de los verbos se forma añadiendo el sufijo -KO a los participios. Si el participio termina el -n, se convierte en -GO. Como auxiliar puedes usar tanto el *izan* como el *ukan*.

Adibideak

atera	aterako
egin	egingo
ikus	ikusiko
hil	hilko
asmatu	asmatuko
erre	erreko

Bihar kalera aterako gara.	Mañana saldremos a la calle.
Gero zuek lan asko egingo duzue.	Luego trabajaréis mucho.
Hurrek telebista ikusiko dute.	Los niños y niñas verán la televisión.
Animalia hau laster hilko da.	Este animal morirá pronto.
Guk ez dugu kiniela asmatuko.	Nosotros no acertaremos la quiniela.
Gero zigarroa erreko duzue.	Luego fumaréis un cigarro.

2. unitatea

(e)Z GERO baldintzakoa

Partizioari lotuz gero, baldintzazko esaldiak sortuko ditugu.
Creamos frases condicionales añadiendo (e)Z GERO al participio.

Aditza bokalez bukatuz gero:
Z GERO

Etorriz gero
Ikusiz gero
Errez gero

Aditza kontsonantez bukatuz gero:
EZ GERO

Emanez gero
Esanez gero
Hilez gero

Edozein pertsonarekin erabili ahal dira eta ondorioko aditzaren arabera itzultzen dira.

Se puede usar con cualquier persona y su significado depende del verbo de la oración principal al que va relacionado.

Oporretara joanez gero, ondo pasatuko dugu.
Oporretara joanez gero, ondo pasatuko duzue.

Si os **vais** de vacaciones, lo **pasaréis** bien.
Si nos **vamos** de vacaciones, lo **pasaremos** bien.

3. unitatea

Ohiturazkoa

Fijatu nola kontatu duen Pili ohitura bat:
Fíjate cómo ha contado Pili una costumbre:

Asteazkenero Ordiziako azoka **egiten** da eta inguruko herrietatik, Lazkaotik, Zaldibiatik, Ataundik ... baserritar asko **etortzen** dira. Baserritarrek baserriko produktuak **ekartzen** dituzte azokara. Udan etxeko tomateak, lekak eta piperrak **izaten** dira. Udazkenean ondoak, usoak eta gaztainak **ekartzen** dituzte.

Etorkizuna, futuroa egiteko **partizipioa+KO/GO** egiten dugu: etorriko gara, egingo dugu...

Ohiturazkoa edo habituala egiteko: **partizipioa+ tzen/ten: etortzen gara, egiten dugu...**

Baserritar asko etortzen dira.	Vienen (suelen venir) muchos baserritaras.
Usoak ekartzen dituzte.	Traen (suelen traer) palomas.
Gu mendira joaten gara.	Vamos (solemos ir) al monte.
Euria egiten du.	Llueve. Suele llover.

NOIZ -TZEN? NOIZ -TEN?

Generalmente, se añade la forma -TZEN, pero los verbos terminados en -N, silibante+I(-si, -zi, -tsi, -tzi, -txi) o -ZTU lo hacen en -TEN: egin (egiten), itxi (ixten); erraztu(errazten).

-TZEN		-TEN		OHARRAK
Nekatu	Nekatzen	Piztu	Pizten	RECUERDA: Mikel pozik dago- Mikel está contento.(ahora) Mikel pozik egoten da- Mikel está (suele estar contento). Una costumbre. Los verbos NAHI IZAN, BALIO IZAN, BEHAR IZAN son especiales, no se conjugan igual: Nik nahi dut-Yo quiero. (ahora) Nik nahi izaten dut- Yo quiero, suelo querer. (una costumbre)
Bukatu	Bukatzen	Edan	Edaten	
Gertatu	Gertatzen	Eman	Ematen	
Aurkitu	Aurkitzen	Esan	Esaten	
Galdetu	Galdetzen	Egin	Egiten	
Aspertu	Aspertzen	Hasi	Hasten	
Hartu	Hartzen	Ikasi	Ikasten	
Atera	Ateratzen	Ikusi	Ikusten	
Irakurri	Irakurtzen	Erosi	Erosten	
Ibili	Ibiltzen	Utzi	Uzten	
Bete	Betetzen	Jaitsi	Jaisten	
Hil	Hiltzen			

4. unitatea

Zergatik? Aditza+ (e)LAKO

El interrogante **zergatik** significa (por qué). En las respuestas la partícula causal correspondiente es **-ELAKO** (porque). Hay que añadir esta partícula al verbo.

Zergatik etorri zara berandu? Esnagailuak jo ez duelako.	¿Por qué has venido tarde? Porque el despertador no ha sonado.
Zergatik joan zara zinemara? Filma oso ona delako.	¿Por qué has ido al cine? Porque la película es muy buena.
Zergatik jan duzu hori? Nahi dudalako.	¿Por qué has comido eso? Porque quiero.
Zergatik jantzi dituzue betaurrekoak?	¿Por qué os habéis puesto gafas?
Nahiko gaizki ikusten dugulako.	Porque vemos bastante mal

IZAN ADITZA		UKAN ADITZA	
NAIZ	NAIZELAKO	DUT	DUDALAKO
HAIZ	HAIZELAKO	DUK/DUN	DUALAKO/DUNALAKO
DA	DELAKO	DU	DUELAKO
GARA	GARELAKO	DUGU	DUGULAKO
ZARA	ZARELAKO	DUZU	DUZULAKO
ZARETE	ZARETELAKO	DUZUE	DUZUELAKO
DIRA	DIRELAKO	DUTE	DUTELAKO

5. unitatea

NOR-NORI aditza

Orain arte bi aditz laguntzaile ezagutzen ditugu: NOR eta NOR-NORK. Unitate honetan beste bat ikusiko dugu: NOR-NORI. Irakurri esaldi hauek, erraz ulertuko dituzu:

Pilota puskatu da.
Baloia galdu da.
Haurra erori da.
Gaur Patxi hurbildu da.

Izenordainak

Niri	a mí
Hiri	a ti
Hari	a él, a ella
Guri	a nosotros, as
Zuri	a ti, a usted
Zuei	a vosotros, as
Haiei	a ellos/a ellas

Baina, NOR esaldi horretan konplemento indirekto (NORI) bat badago, horrela geratzen da aditza:

Si este sujeto NOR coincide en la frase con un complemento indirecto (NORI) la forma DA sufre las siguientes alteraciones:

DA+ NIRI	ZAIT	A mi
DA+ HIRI	ZAIK/N	A ti
DA+ HARI	ZAIO	A él/ a ella
DA+ GURI	ZAIGU	A nosotros
DA+ ZURI	ZAIZU	A ti, a usted, a vos
DA+ ZUEI	ZAIZUE	A vosotros, a ustedes
DA+ HAIEI	ZAIE	A ellos

Ikusi lehengo adibideak:

Pilota puskatu da.	Niri pilota puskatu zait. Zuri pilota puskatu zaizu.	A mí se me ha roto la pelota. A tí se te ha roto la pelota.
Baloia galdu da.	Hari pilota galdu zaio. Guri pilota galdu zaigu.	A él/a ella se le ha perdido el balón. A nosotros se nos ha perdido el balón.
Haurra erori da.	Zuei haurra erori zaizue. Haiei haurra erori zaie.	Se os ha caído el niño. Se les ha caído el niño.
Gaur Patxi hurbildu da.	Gaur niri Patxi hurbildu zait. Gaur zuri Patxi hurbildu zaizu.	Hoy se me ha acercado Patxi. Hoy se te ha acercado Patxi.

El caso dativo nori (en singular)

El caso dativo en euskara lleva el sufijo -I. Los interrogativos correspondientes son: NORI (a quién), ZEINI (a cuál) y ZERI (a qué)

IZENAK						ERAKUSLEAK Demostrativos	
ARRUNTAK - Comunes		NAGUSIAK - Propios				HONI HORRI HARI	A este, esta A ese, esa A aquél, aquella
-ARI		Bok.	-RI	Konts.	-I		
Gizonari Emakumeari ikasleari	Al hombre A la mujer Al alumno	Anari Iñakiri	A Ana A Iñaki	Lurdesi Joni	A Lurdes A Jon		

Niri dantzariak ez zaizkit gustatzen

Aurreko ariketa batean NOR-NORI aditza ikusi dugu. Orain ere ikusiko dugu, baina subjektua plurala denean.

Pilota puskatu zait
Baloia galdu zaio
Haurra erori zaizu
Gaur laguna hurbildu zaigu

BAINA

Pilotak puskatu zaizkit
Baloiak galdu zaizkio
Haurrak erori zaizkigu
Gaur lagunak hurbildu zaizkigu

HURA

HAIEK

NIRI
HIRI
HARI
GURI
ZURI
ZUEI
HAIEI

ZAIT
ZAIK/N
ZAI
ZAIGU
ZAIZU
ZAIZUE
ZAI

ZAIZKIT
ZAIZKIK/ZAIZKIN
ZAIZKIO
ZAIZKIGU
ZAIZKIZU
ZAIZKIZUE
ZAIZKIE

Ikusi adibideak:

Hortza puskatu da.
Hortzak puskatu dira.

Niri hortza puskatu zait
Niri hortzak puskatu zaizkit

A mí se me ha roto el diente
A mí se me han roto los dientes.

Baloia galdu da.

Hari baloia galdu zaio

A él/ella se le ha perdido el balón

Baloiak galdu dira

Hari baloiak galdu zaizkio

A él/lla se le han perdido los balones

Haurra erori da.
Haurrak erori dira

Zuei haurra erori zaizue
Zuei haurrak erori zaizkizue

Se os ha caído el niño.
Se os han caído los niños

NORI pluralean

El caso dativo en euskara lleva el sufijo -I. Los interrogativos correspondientes son: NORI (a quién), ZEINI (a cuál) y ZERI (a qué).

singularra	plurala	Izen nagusiak	
ARI	EI	RI	I
Neskari	Neskei	Anari	Luisi
Emakumeari	Emakumeei	Koldori	Beatrizi
Gizonari	Gizonei		

Ataza batean ORDINALak azaldu dira. Lantzeko modukoa iruditzen bazaizu:

Zenbakiak

Ordinalak

Ordinalak egiteko nahikoa da zenbakiari –garren atzizkia jartzea. Salbuespena 1. lehenengo

Basta con añadir el sufijo –GARREN para hacer los números ordinales. La excepción es el 1: lehenengo

1	Bat	Lehenengo
2	Bi	Bigarren
3	Hiru	Hirugarren
4	Lau	Laugarren
5	Bost	Bosgarren
6	Sei	Seigarren
7	Zazpi	Zazpigarren
8	Zortzi	Zortzigarren
9	Bederatzi	Bederatzigarren
10	Hamar	Hamargarren
11	Hamaika	Hamaikagarren
12	Hamabi	Hamabigarren
13	Hamahiru	Hamahirugarren
14	Hamalau	Hamalaugarren
15	Hamabost	Hamabosgarren
16	Hamasei	Hamaseigarren
17	Hamazazpi	Hamazazpigarren
18	Hamazortzi	Hamazortzigarren
19	Hemeretzi	Hemeretzigarren
20	Hogei	Hogearren
35	Hogeita hamabost	Hogeita hamabosgarren
67	Hirurogeita zazpi	Hirurogeita zazpigarren
80	Laurogei	Laurogeigarren

Posible da zenbakiaren ondoren, puntu bat jartzea

Se puede usar un puntojunto al número en lugar del sufijo –garren:

- 1. = lehenengo**
- 2. = bigarren**
- 3. = hirugarren**

6. unitatea

Nola erabiltzen dugu T(z)EA?

Batzuetan aditza jartzen dugu izenaren lekuan. Euskaraz -TZEA erabiltzen dugu aditza izen bihurtzeko.

Cuando un verbo sustituye a un sustantivo se le añade la terminación -TZEA.

Niri	tabako A	gustatzen zait	Me gusta el tabaco
Niri	erre TZEA	gustatzen zait	Me gusta fumar
*Niri	erre	gustatzen zait	(gaizki dago, está mal)
Zuri	kirola	gustatzen zaizu	A tí te gusta el deporte
Zuri	kirola EGITEA	gustatzen zaizu	A tí te gusta hacer deporte
Debekatuta dago		tabakoa	El tabaco está prohibido
Debekatuta dago		ERRETZEA	Fumar está prohibido
*Debekatuta dago		erre	(gaizki dago, está mal)

-TZEA beti singularra da.

JATEA gustatzen zait.
Patatak jatea gustatzen zait.

Me gusta comer
Me gusta comer patatas

NOIZ -TZEA ETA NOIZ -TEA?

Generalmente, se añade a los verbos la forma -TZEA, pero los verbos terminados en -N, silbante +I(-si, -zi, -tsi, -tzi, -txi) o -ZTU lo hacen en -TEA: Egin (egitea), itxi (ixtea); erraztu(erraztea).

Si el presente habitual, se hace con -TZEN la nominalización es con -TZEA. Si se hace con el -TEN, usaremos el TEA.

TZEA		TEA	
Nekatu	Nekatzea	Piztu	Piztea
Bukatu	Bukatzea	Edan	Edatea
Gertatu	Gertatzea	Eman	Ematea
Aurkitu	Aurkitzea	Esan	Esatea
Galdetu	Galdetzea	Egin	Egitea
Aspertu	Aspertzea	Hasi	Hastea
Hartu	Hartzea	Ikasi	Ikastea
Atera	Ateratzea	Ikusi	Ikustea
Irakurri	Irakurtzea	Erosi	Erostea
Ibili	Ibiltzea	Utzi	Uztea
Bete	Betetzea	Jaitsi	Jaistea
Hil	Hiltzea	Entzun	Entzutea

Memorizatu egitura hau

Adjektiboa + da + tzea

Ona da saskibaloian jokatzea.
 Erretzea oso txarra da.
 Aspergarria da beti futbola ikustea.
 Osasuntsua da kirola egitea.

7. unitatea

noren/norena

El genitivo posesivo:

La idea de posesión se expresa en euskara por medio del sufijo -EN. El interrogativo, tratándose de personas es NOREN (de quién). También se usan ZEINEN (de cuál) y ZEREN (de qué). La palabra que lleva el noren siempre antecede a la que hace referencia al objeto poseído.

Arantxaren etxea	La casa de Arantxa
Mutilaren liburua polita da.	El libro del chico es muy bonito.
Neskaren koaderno nahi dut.	Yo quiero el cuaderno de la chica.
Nire autoa oso polita da.	Mi coche es muy bonito.

Izen arruntak singularrean AREN	Izen nagusiak (r)EN	Izenordeak		Erakusleak	
MutilAREN	AneREN	NIRE	Mi	HONEN	De este
NeskAREN	PelloREN	HIRE	Tu	HORREN	De ese
GizonAREN	RaulEN	HAREN	De el	HAREN	De aquel
EmakumeAREN	MarianEN	GURE	Nuestra	HAUEN	De estos
		ZURE	Tu, su	HORIEN	De esos
		ZUEN	Vuestra	HAIEN	De ellos
		HAIEN	De ellos		

Elipsis del núcleo

Quando se suprime el núcleo (el nombre), la declinación pasa directamente al sintagma noren.

Neskaren liburua
Pelloren etxea

neskaren (liburu)a
Pelloren (etxe)a

neskarena
Pellorena

NOREN... A NOREN... AK		NORENA NORENAK	
Mutilaren sudurra	La nariz del chico	Mutilarena	La del chico
Mutilaren belarriak	Las orejas del chico	Mutilarenak	Las del chico
Neskaren ahoa	La boca de la chica	Neskarena	La de la chica
Neskaren hankak	Los pies de la chica	Neskarenak	Las de las chicas

NONGO/ NONGOA/NONGOAK bezala egiten da:

Hau Bartzelonako ikaslea da.	→	Hau Bartzelonakoa da.
Hauek Bartzelonako ikasleak dira.	→	Hauek Bartzelonakoak dira.
Hau Arantxaren semea da.	→	Hau Arantxarena da.

Subjektua plurala izanez gero, NORENAK.
Si el sujeto es singular, utilizaremos NORENA.
Si el sujeto es plural, utilizaremos NORENAK.



NOREN: Neskaren laguna jatorra da
NORENA: Neskarena



NOREN: Neskaren lagunak jatorrak dira
NORENAK: Neskarenak



NOREN: Nesken laguna jatorra da.
NORENA: Neskena



NOREN: Nesken lagunak jatorra dira.
NORENAK: Neskenak

8. unitatea

IZAN aditza (NOR)

orain	lehen
NAIZ	NINTZEN
HAIZ	HINTZEN
DA	ZEN
GARA	GINEN
ZARA	ZINEN
ZARETE	ZINETEN
DIRA	ZIREN

Adibideak

Ni orain oso argala naiz, baina lehen lodia nintzen.
Ahora soy muy delgado, pero antes era gordo.

Zu orain oso serioa zara, baina lehen bihurria zinen.
Tú ahora eres muy serio, pero antes eras muy traviesa.

Aditz hau laguntzaile bezala ere erabiltzen da.
También se usa como auxiliar.

Laguna atzo **etorri zen**.
Gu egunero **etortzen ginen**.
Zuek **ez zineten eseri**.

 La amiga vino ayer.
Nosotros veníamos todos los días.
Vosotros no os sentasteis.

azalpena

NOR-NORK aditza lehenaldian (UKAN)

orain	lehen	orain	lehen
DUT	NUEN	DITUT	NITUEN
DUK/N	HUEN	DITUK/N	HITUEN
DU	ZUEN	DITU	ZITUEN
DUGU	GENUEN	DITUGU	GENITUEN
DUZU	ZENUEN	DITUZU	ZENITUEN
DUZUE	ZENUTEN	DITUZUE	ZENITUZTEN
DUTE	ZUTEN	DITUZTE	ZITUZTEN

Adibideak

Nik orain umore ona dut eta lehen umore txarra nuen.
Ahora tengo buen humor y antes tenía mal humor.

Pellok kotxea du, eta lehen txirrindua zuen.
Pello tiene coche y antes tenía una bicicleta.

Aditz hau laguntzaile bezala ere erabiltzen da.
También se usa como auxiliar.

Arantxak ekarri zuen. Lo trajo Arantxa.
Guk telebista ikusten genuen. Nosotros veíamos la televisión.
Zuk ez zenuen hori esan. Tú no dijiste eso.

9. unitatea**Denborazkoak**

PARTIZIPIOA+	BAINO LEHEN AURRETIK ONDOREN GERO	Bazkaldu baino lehen Bazkaldu aurretik Bazkaldu ondoren Bazkaldu eta gero	Antes de comer Antes de comer Después de comer Después de comer
ADITZ JOKATUA +	-(E)NEAN	Bazkaldu dugunean Bazkaltzen dugunean Etorri naizenean Etorri nintzenean	Cuando hemos comido Cuando comemos, cuando comamos Cuando he venido Cuando vine

Adibideak

Bazkaldu baino lehen, eskuak garbitzen ditugu.
Bazkaldu aurretik, eskuak garbitzen ditugu.
Bazkaldu baino lehen, eskuak garbitu behar ditugu.
Bazkaldu aurretik, eskuak garbitu nituen.

Bazkaltzen dugunean, hitz egiten dugu.
Bazkaltzen dutenean, zukua edaten dute familia honetan.
Nik ez dut frutarik jaten, kanpoan bazkaltzen dudanean.



Bazkaldu ondoren, hortzak garbitu ditu Amaiak.
 Bazkaldu eta gero, hortzak garbitu ditu Amaiak.
 Bazkaldu ondoren, hortzak garbitzen ditugu.
 Bazkaldu eta gero, hortzak garbitu behar ditugu.

10. unitatea

A1 mailako adierazpide linguistikoak

Aditza oraindaldian

NOR		NOR-NORK	NOR-NORI	
Ni NAIZ	NIK DUT	DITUT	NIRI ZAIT	ZAIZKIT
HI HAIZ	HIK DUK/N	DITUK/N	HIRI ZAIK/N	ZAIZKIK/N
HURA DA	HARK DU	DITU	HARI ZAIO	ZAIZKIO
GU GARA	GUK DUGU	DITUGU	GURI ZAIGU	ZAIZKIGU
ZU ZARA	ZUK DUZU	DITUZU	ZURI ZAIZU	ZAIZKIZU
ZUEK ZARETE	ZUEK DUZUE	DITUZUE	ZUEI ZAIZUE	ZAIZKIZUE
HAIEK DIRA	HAIEK DUTE	DITUZTE	HAIEI ZAIE	ZAIZKIE

Aditza lehenaldian

NOR	NOR-NORK	
Ni NINTZEN	NIK NUEN	NITUEN
HI HINTZEN	HIK HUEN	HITUEN
HURA ZEN	HARK ZUEN	ZITUEN
GU GINEN	GUK GENUEN	GENITUEN
ZU ZINEN	ZUK ZENUEN	ZENITUEN
ZUEK ZINETEN	ZUEK ZENUTEN	ZENITUZTEN
HAIEK ZIREN	HAIEK ZUTEN	ZITUZTEN

Nahi, behar, balio izan aditzak...

Deklinabidea

Deklinabidean hiru kasu daude:
 Singularra, plurala eta mugagabea (indeterminatua)
 NOR kasuan, adibidez: A, AK, ϕ

NOR	-A -AK -φ	Mutila etorri da. Mutilak etorri dira. Pili etorri da. Mikel etorri da.
NORK	-AK -EK -K edo EK	Mutilak egin du . Mutilek egin dute. Pilik egia esan du. Mikelek egia esan du.
NORI	-ARI -EI -RI edo I	Mutilari musika gustatzen zaio. Mutilei musika gustatzen zaio. Piliri musika gustatzen zaio. Mikeli musika gustatzen zaio.
NOREN	-AREN -EN -REN edo EN	Lagunaren etxea polita da. Lagunen etxea polita da. Piliren etxea polita da. Mikelen etxea polita da.
NORENA	-ARENA/AK -ENA/ENAK -RENA/NAK edo -ENA/ENAK	Hau neskarena da. Hauek neskarenak dira. Pilirena da liburua. Mikelenak dira betaurrekoak.
NOREKIN	-AREKIN -EKIN -REKIN/EKIN	Neskarekin nago. Neskekin nago. Pilirekin nago. Mikelekin nago.

Lekuzkoak

	NON	NORA	NONDIK
Singularra	-AN edo -EAN MendiAN nago KomunEAN nago	-RA edo -ERA MendiRA noa KomunERA noa	-TIK edo -ETIK MendiTIK etorri naiz KomunETIK etorri naiz
Izen nagusiak	-N edo -EN GasteizEN nago BilboN nago	-RA edo ERA GasteizERA noa BilboRA noa	-TIK edo ETIK GasteizETIK etorri naiz BilboTIK etorri naiz

Nominalizazioa

-T(z)EA	-T(z)EKO
<ul style="list-style-type: none"> • Gustatzen zait JATEA • Atsegin dut ETORTZEA • Gustuko dut EROSTEA 	<ul style="list-style-type: none"> • ABESTEKO gogoa dut • Euskara IKASTEKO denbora behar da • Liburua IRAKURTZEKO da

Kausalak -(e)LAKO

- Berandu esnatu **NAIZELAKO** nago hemen.
- Ama gaixorik **DAGOELAKO** etorri da sendagilea.
- Ikasi **DUGULAKO** gaingitu dugu.

Baldintzazkoak (e)Z GERO

- Telebista **IKUSIZ GERO**, begiak txikitzen dira.
- Askok **JANEZ GERO**, asko gizenduko zara.
- Begiak **ITXIZ GERO**, amets egingo duzu.

Eta gainera...

Orduak, hilabeteak, asteko egunak, zenbakiak, leku izenak, janari izenak...

Hamarrak
Ordu biak laurden gutxi
Bostak eta laurden
Zazpi eta erdiak...

Aita, ama, alaba, semea,
osaba, izeba, aitona, amona,
iloba, biloba, anaia, ahizpa,
neba, lehengusua,
lehengusina...

urtarrila
otsaila
martxoa
apirila
maiatza
ekaina
uztaila
abuztua
iraila
urria
azaroa
abendua

Bat, bi, hiru, lau, hamaika, hamabi
Hogeita bost, hirurogeita zazpi, ehun eta
hamabi, mila eta bostehun

Astelehena, asteartea, asteazkena,
osteguna, ostirala, larunbata eta igandea.

**Ikaslea, irakaslea,
langilea, medikua...**